

Alter egoak

Goiatz Labandibar Arbelaitz



Alter egoak

Goiatz Labandibar Arbelaitz

Julene Azpeitia 34. ipuin lehiaketa

2021

Lehen saria

2021eko azaroan digitalizatutako ipuina.

© Goiatz Labandibar Arbelaitz (ipuinarena)

© Zumaiako Udala (argitalpen honena)

Plazari senarraren izena jarriko ziotelako zegoen han Efi. Udaletxetik deitu zion Kultura teknikariak hilabete lehenago-edo. Azaltzeko udalbatzarrak, aho batez, plaza bati bere senarraren izena jartzea erabaki zuela. "Hiriarentzako eta euskal literaturarentzako oso garrantzitsua izan zen berak egindako lan eskerga. Uste dugu aitortza merezi duela, gure hiriaren izena lau haizetara zabaldu zuelako. Batzuetan berandu iristen dira aitortzak, badakigu, baina hobe berandu inoiz baino, ezta?". Eta segidan, Efi plakaren inaugurazioan han egotea zenbateko ohorea eta zeinen garrantzitsua izango zen azaldu zion.

Plaza absurdo bati eman zioten senarraren izena. "Ez zen hainbestekoa izango egin zuena", pentsatu zuen Efik. Izan ere, lau etxe-blokeren atzealdeko patio bat zen. Ez zegoen ataririk, ez zegoen dendarik, ez zegoen buzoirik plaza hartara ematen zuenik. Inork ez zuen bere senarraren izena idatzi beharko gutun-azal batean. Zakur-kakak baino ez zeuden atzeko patio hartan; gaizki zaindutako zelai zikin bat baino ez zen.

Urte askoan bizi izan ziren pisu-bloke haietako batean Efi eta senarra. Agian horregatik erabaki zuten patio triste hari senarraren izena jartzea... Etxe atzeko patio hura, baina, ez zen garrantzitsua izan ez Efiarentzat ez senarrarentzat. Efik ogi-papurak astintzen zituen patio hartara sukaldeko leihotik. Senarrak, ziurrenik, ez zuen jakingo han atzean patiorik bazenik ere. Gutxitan egoten zen etxean. Okupatuegia zegoen idazten, tertulia intelektualetan hitz egiten, Euskaltzaindiko eta mila fundaziotako batzarretan parte hartzen, liburuak aurkezten, hitzaldiak ematen eta eztabaidatzen. Agian udalekoek uste (nahi) zuten patio hari begira inspiratzen zela senarra eta idazten zuela Amaya makina zaharrean. Oi, zer zen ezjakintasuna. Oi, zer zen intelektualizazioaren xarma.

Efi omenaldiko lekura iritsi zenean, besotik heldura eraman zuen patiora alkateak. Ibilbide motz horretan, azalpenak eman zizkion: "Lehenengo, Kultura zinegotziak

hartuko du hitza. Zure senarraren bizitza eta lan literarioa kontatuko ditu, labur. Gero, nik bi hitz esango ditut. Ondoren, plaka desestaliko dugu: zuk eta biok. Orain, ikusiko duzunez, oihal zati batekin estalita dago. Baina zu lasai, nik esango dizut noiz egin tira. Nahi baduzu, zuk ere esan ditzakezu hitz batzuk, Udala eskertuz edo...".

–Ez, ez dut nahi –erantzun zion Efik.

Alkatea mutu geratu zen, lauzpabost segundoz. Aski izan ziren Efi konturatzeko alkate jauna ez zela eroso sentitu bere erantzunarekin.

“Ziurrenik kazetari asko hurbilduko dira, zure senarra hiri honetako pertsonaia esanguratsuetako bat baitzen... Badakigu berandu xamar datorrela omenaldi xume hau, baina hobe berandu inoiz ez baino, ezta?”.

Efik ez zuen erantzun. Plaka estaltzen zuen oihal gorriari begira zegoen. Gero, euren sukaldea izan zeneko leihora begiratu zuen. Pertsianak erdi-irekita zeuden. Ondoko balkoian arropa batzuk zeuden zabalduak. Norbait bizi zen orain ere han, beraz.

Udaleko komunikazio arduraduna hurbildu zitzaion segidan, irribarretsu. Efik ekitaldian zehar non kokatu behar zuen esan zion. Argazki batzuk egin zizkion gero, eta oso dotore zegoela esan. Dotore. Adineko alargunak inoiz ez baitira guapa egoten. Gehienez ere, dotore. Hori da espero dezaketen edertasunarekin lotutako adjektiborik gorenena.

Alkate jaunak esan bezala, jendea inguratzen hasi zen. Kazetariak gehienak, euren argazki-kamera, koaderno, grabagailu eta punta-puntako mugikorrek.

Puntu-puntu hasi zen Kultura zinegotzia hizketan. Gogora ekarri zuen Simon Agirre izan zena. 1930ean jaiotakoa hiri hartan bertan. Garai gogorrak ezagutua: euskararen debekua, klandestinitatea, gerra ondorena, errazionamendua eta abar, eta abar, eta abar. Gazte hasi zen idazten. Gaztelaniaz lehenengo, baina euskaraz gero. Erabaki politiko irmoa hartu zuen. Bere kasa alfabetatu eta handik aurrera, euskal literatura altxorrez josten hasi zen: itzulpenak, narrazioak, poemak, bertso idatziak... Euskal literatura garaikideko pertsonaiarik garrantzitsuenetarikoa ere berari zor zitzaion: Simonek sortu baitzuen Elo, erdi-mailako emakume hiritarraren errutinazko bizitza literaturaren gorenera eramanda, noiz eta emakumeak apenas izaten zirenean liburu-etako protagonista. Emankorra izan zen

haren artista ibilbidea. Hil zen arte: 1988an. Berandu zetorren omenaldia, bai, bazekiten. Baina hobe berandu, inoiz ez baino.

Ondoren, alkate jaunak hartu zuen hitza eta Simon Agirrerri plaza bat eskaintzeak zenbat harrotzen zuen adierazi zuen prentsaren aurrean. Aho batez hartutako erabakia izan zen. Bide batez, ekitaldiak eta plakak langile-auzo hari prestigioa emango ziotelakoan zegoen. Simon Agirre urte askoan bizi izan zen etxe haietako batean, emaztearekin eta seme-alabekin. Seinale auzo guztietan zuela sormenak lekua. Etorriak ez zuen maila sozialik. Eta hori, pozgarria zen. Alkateak berriz errepikatu zuen, agian beranduegi zetorrela aitortza, baina hobe zela berandu inoiz ez baino.

–Orain, Simon Agirrerren alarguna den Efi Romeroren laguntzarekin, Agirrerren ohorezko plaka azalera ekarriko dugu. Baina, aurretik, Efi: esan nahi al duzu zerbait?

–Ez.

Berriz ere deseroso sentitu zuen Efik alkatea bere bazterrean. Bera beti izan zen horrelakoa: hitz gutxikoa, baina pentsatzen zuena esaten zuena. Horregatik ez zion senarrak behin ere haren lanik irakurtzeko eman, ez publikatu aurretik, ez ondoren. Bere iritziaren beldur zelako. Eta ez euskaraz ez zelako oso ongi moldatzen. Zeren, Efik ederki asko zekien senarrak lan guztiak berridazten zituela gaztelaniaz, euskaraz alfabetaturik ez zeuden edo euskaraz ez zekiten lagunek irakur zitzaten. Eta esan ziezaioten, gehienez ere, koma hura puntu bihurtu behar zuela, edo halako momentua gehiago edo gutxiagoa deskribatzea komeni litzatekeela. Kritika sakonagoak, sekula ez. Inor ez zen ausartuko Simon Agirrerri idazten zuena ez zela beste munduko deus esatera.

Alkate jaunak senarraren izena bistaratzeko eskatu zion. "Ohorea" Efirena zela esan zion. Efik sokatxo bati tira egitean ohorea non zegoen ez zuen oso argi, baina tira, tira zion sokari, mugitu zen oihaltxoan alde baterantz eta hantxe agertu zen senarraren izena, distiratsu: Simon Agirre plaza. Plaza. To. Bizitza guztian txakurren kaka-tokia izan zen hari plaza deitu zioten udaleko haundi-maundiek.

Txalo batzuk jo zituzten alkateak, Kultura zinegotziak, Komunikazio arduradunak eta hara hurbildutako kazetariak. Balkoi eta leiho batzuetara bizilagunak atera ziren, baina haiek ez zuten txalorik jo. Antza zenez, haietaz ahaztu ziren udalekoak. Ahantzi zitzairen garrantzitsuenei abisatzea: bizilagunei. Simon Agirre ezagutu zuten

batzuek –nahiz eta ez zen denbora asko pasatakoa han; gehienez ere “agur” eta “kaixo”-ren bat trukatu izango zuten.

Lzatez, Efiren izena gehiago merezi zuen hango kaka-toki hark. Efik, bederen, orduak pasatu zituen auzunean: erosketak bertan egiten zituen, seme-alaben bila joaten zen ikastolara, bizilagunekin hitz egiten zuen ezkaratzean, arropak zabaltzen zituen orain senarraren izena zeraman plaza hartara ematen zuen balkoian. Senarrak, apenas egiten zuen lo Efiren ondoan. Desordutan iristen zen askotan, tertulia literario, bilera garrantzitsu edo errezitaldi inozoetatik. Eta goizean goiz jaikitzen zen, idazleari gustatu ez baina Efiri eta seme-alabei jaten ematen zien bulegoko lanera joateko.

Txaloak bukatu zirenean, alkateak eskua luzatu zion Efiri. “Eskerrik asko etortzeagatik” esan zion. Komunikazio arduraduna hurbildu zen, eta e-maila ematen bazion, argazki batzuk bidaliko zizkiola zin egin zion. Efik e-maila zer zekien ziur-ziur ez zekien, baina bazekien bilobek hain etxekotuak zituzten ordenagailu eta gailu berri horiekin zerikusia zuela. Ez zuela argazkirik behar erantzun zion. Ziur zegoela harakinak egunkaria jasoko ziola. Horrekin nahikoa izango zuela egunaren akordurako.

Segidan, gazte bat hurbildu zitzaion. Kazetaria zela esan zion eta ea pare bat galdera egiterik bazuen. Efik baietz esan zion. Galdetzeko nahi zuena. Baina ez zekiela entzun nahi zuenik esango ote zion berak. Gazteak barre-murriz bat egin zuen, “ziur baietz” erantzun aurretik.

–Ilusioa egin al dizu senarra gogora ekartzeko Udalak plaza bati bere izena ematea?

–Ez.

–Hemen bizi izan zineten...

–Ni bai, senarra ez. Hark lo besterik ez zuen egiten auzune honetan.

–Simon Agirre idazle goraiapatua eta kutuna da euskal literaturan. Zer sentitzen da hori jakinda?

–Ez dut berak idatzitako deus irakurri sekula.

–A ez?

–Ez. Ez zuen nahi nik irakurtzerik.

–Agian euskaraz ez zinelako aise moldatzen...?

–Baita zera ere. Idatzi guztiak itzultzen zituen gaztelaniara Simonek. Baina bazekien nik egia esango niola. Eta ez zuen deus txarrik entzun nahi. Idazle guztiak dira horrelakoak. Beti adulazioa bilatzen dute, inoiz ez sintzeritatea.

–Gaur zuen seme-alabak ez dira etorri. Ezin izan dute?

–Ez diet esan ere egin. Zakurren kaka-toki bati haien aitaren izena jarri behar diotelako beren egitekoak utzi behar al zituzten? Gainera, Simonek asko emango zion euskarari, euskal literaturari eta bere lagun idazleei. Baina bere etxekoei eskaini ez zien denboratik hartu zuen haiei eman zien guztia.

Kazetari gazteak grabagailuko *stop* botoia sakatu zuen.

–Lana izorratu dizut, ezta? –galdetu zion Efik.

–Ez, lasai.

Baina Efik jakin bazekien baietz. Behin eraman zuen Simonek bere lagun kulturzaleekin afari batera. Ez zuen gehiago gonbidatu. Efik hatza zaurian sartu zien ustezko artista abangoardista haiei guztiei. Hantxe zeuden denak bapo jaten, edaten eta erretzen, euren emazteak umezain, sukaldari, etxezain zituztela. Ustez berarekin atsegina izan nahi zuen margolariari Simon Agirreren emaztea izatea ez zela batera apasionantea erantzun zionean bukatu ziren berarekiko adeitasunak. Ordutik aurrera, inork ez zion zuzenean galderarik egin. Gutxiago hitz egin zuten gizaseme haiek denek mahai-inguruan. Nahiz eta berdin jan, edan eta erre zuten.

–Dotore agertzen zara alkatearen ondoan, Efi –esan zion biharamunean Dionisio harakinak–. Tori, egunkaria jaso dizut. Rekuerdotarako.

Hantxe bertan hasi zen Efi bezperako kazetari gazteak idatzitakoa irakurtzen:

“EFI ROMERO, ELOREN ALTER EGOA”

Simon Agirre idazlearen izena eman dio Udalak plaza bati

Aintzine Martin

Elo jarri zion izena Simon Agirrek, baina benetan, Efi idatzi nahi zuen. Efi Romero Agirreren emaztea izan zen 40 urtez. Ez zion liburu bakar bat eskaini senarrak. Eskaintza guztiak bere lagunarteko intelektualei eskaini zizkien.

Gizasemeak guztiak. Baina atzo, Udalak parke bat Simon Agirre izendatu behar zuela eta, Romero itzaletik erreskatatu zuten. Ziurrenik, nahi gabe.

Agirre hiri honetako seme kutun omen da, euskal literaturak azken urteetan izan duen figura garrantzitsuenetako bat. Hala ere, atzo, udal ordezkari eta kazetariez gain, jende gutxi elkartu zen idazlearen omenaldia izan behar zuen, baina izan ez zen horretan. Jatetxe on batean bazkaltzeak motibatutako lau katu horiek eta leihoetara arrimatu ziren bizilagun kuxkuxero batzuek baino ez zuten ikusi Efi Romerok nola tira zion oihalari, *Simon Agirre plaza* zioen plaka begi-bistaratzeko.

Ez zuen hitzik hartu Romerok, ez alkateak eskaini zionean eta ez ondoren ere. Ez zion eskerrik eman Udalak plazari senarraren izena jarri ziolako. Gero, ez ziola ilusiorik egin aitortu zion egunkari honi.

Simon Agirrereren itzalpean bizi izan zen Efi Romero. Agirrek idatzi ahal izateko, berak kozinatzen zuen, seme-alabak hazi zituen eta Agirrerengandik urrun mantentzen zituen hura kontzentratu zedin, senarraren bulegari soldatarekin bizitzeko moldatu zen, ez zen zinemara joaten ezta lagunekin kafe bat hartzera. Hori guztia, Simon Agirrek idazteko aukera izan zezan. Euskal literaturari aportazioa egin ziezaion. Hil eta 25 urtera egunkari, aldizkari, irrati eta dokumentaletan gorazarre egin diezaioten. Agirrek hori guztia lortzea ahalbidetu zuenari, berriz, liburu bakar batean eskaintza ziztrin bat ere ez egiteko, gero.

Simon Agirrereren pertsonaia gogoratuena da Elo: "Garai bateko erdi-mailako emakume hiritarraren errutinazko bizitza literaturaren gorenera eramanda", hiri honetako alkate jaunaren hitzetan, "noiz eta emakumeak apenas izaten zirenean liburu-etako protagonista". Argi dago Efi Romero hartu zuela eredu senarrak. Baina gure hiriko alkate jauna konturatu ere ez zen egin, atzo, aldamenean zuen emakume hori bera zela Elo. Eta, Simon Agirrerena ez, baina harena zela plaza hark merezi zuen izena. Noiz, eta emakumeak apenas izaten diren hiri-kartografietako protagonista. Alegia, orain".

–Joño, bost galderatan Simonek berrogei urtean baino gehiago ezagutu nau gazte honek...

Patrikan sartu zuen errekorrea. Etxera joatean marko barruan jarriko zuen.